

## Pilotaren aldeko apustua

Kiroljokoak hasiera-hasieratik egin du pilotaren aldeko apustua, bere apustu katalogoan gero eta aukera zabalagoa eskainiz, eta orain ere frontoietara iritsiz erakusten du bere pilotarekiko harreman berezia. Izan ere, Kiroljokoak publizitate akordioa sinatu du Binakako Txapelketarako, horrela **frontoietan publizitatea jartzen duen lehen kirol apustu enpresa** bihurtuz. Kiroljokoaren publizitatea Eibarko Astelenan eta Iruñeako Labriten ikusi ahal izan da dagoeneko, txapelketaren lehen jardunaldiko partiduetan.

Kiroljokoak pilota partiduetan apustu aukera zabala eskaintzen du, bai aldez aurreko modalitatean (norgehiagoka hasi baino lehen egiten diren apustuak) eta baita zuzenekoan (partiduan zehar egiten diren apustuak, non apustulariek partiduan gertatzen denaren arabera kuota desberdinak aurkitzen dituzten). Hona hemen EAE-ko Kiroljokoa Apustu-etxe, Txoko eta tabernatan aurkitu daitezkeen apustuen adibide txiki bat (ikusi kokapenak [www.kiroljokoa.com](http://www.kiroljokoa.com) webgunean):

2. jardunaldia	
PARTIDUA	KUOTA
Titin III - Pascual <b>vs.</b> Olaizola I - P.Ruiz	1,20  3,75
Gonzalez - Laskurain <b>vs.</b> Bengoetxea VI - Beloki	2,30  1,45
Mtz. de Irujo - Beroiz <b>vs.</b> Berasaluze VIII - Begino	1,60  2,05
Olaizola III - Mendizabal II <b>vs.</b> Xala - Zubieta	1,35  2,70

Binakako Txapelketaren irabazlea			
BIKOTEA	KUOTA	BIKOTEA	KUOTA
Mtz. de Irujo - Beroiz	2,55	Berasaluze VIII - Begino	3,55
Olaizola II - Mendizabal II	5	Bengoetxea VI - Beloki	6,50
Titin III - Pascual	7	Gonzalez - Laskurain	12
Xala - Zubieta	20	Olaizola I - Patxi Ruiz	55

*Oharra: Kuotak aldatu egin daitezke. Gutxienerako apustua euro batekoa da eta gehienezkoa 100 eurokoa.*

Kiroljokoak bihar hasiko den Bigarren Mailako Binakako Txapelketari ere jarraipena egiten dio. Apustuen arabera, Retegi BI-Cecilio (3ko kuota apustu eginiko euro bakoitzeko) eta Saralegi-Eskudero (3,25eko kuota apustu eginiko euro bakoitzeko) dira favorito nagusiak.

### KIROLJOKOA, PILOTAKO KATALOGORIK ZABALENA

Kiroljokoak pilotaren aldeko apustua egiten du, txapelketa eta jaialdi nabarientako apustuak eskainiz, ez bakarrik eskupilotan, baizik eta palan, erremontean eta zesta-puntan ere. Horrela, adibidez, Kiroljokoan honako hauetan apustu egin daiteke: palako Gipuzkoako Herri-arte Txapelketan eta Munduko Binakako Txapelketan.



## Australiako Opena, denboraldiko lehen txapelketa nagusia

Tenis denboraldia dagoeneko hasi da Kiroljokoan eta datorren astean handietako bat dator: Australiako Opena. Txapelketa garrantzitsua izanik, Kiroljokoak jarraipen berezia egingo dio 2010eko lehen Grand Slam-ari, egunero zuzeneko apustuak eskainiz goiz osoan zehar, txapelketak irauten duen bi asteetan zehar.

Tenisak harrera handia izan du Kiroljokoako apustularien artean, partidu aukera zabala (bai ATP eta bai WTA ) eta zuzeneko partiduetan eskuragarri dauden apustu modalitate anitzak ( partiduaren irabazlea, hurrengo puntuaren irabazlea, hurrengo setaren irabazlea, setaren emaitza zehatza...) oso gustuko dutelarik.

Kiroljokoa apustuetan Federer da favorito nagusia eta Rafa Nadalek gertutik jarraitzen dio titulua berriz lortzeko.

Australiako Openaren irabazlea			
JOKALARIA	KUOTA	JOKALARIA	KUOTA
R. Federer	3,00	R. Nadal	3,75
A. Murray	4,40	J. M. del Potro	5,20
N. Djokovic	6,50	N. Davidenko	6,50
R. Soderling	14,00	A. Roddick	18,00

## Tour Down Under, Euskaltel abian da

Datorren asteartean hasiko da Down Under Tourra, UCI Pro Tourreko lehen froga, eta Kiroljokoak ez dio txirrindularitza zaletuekin, eta bereziki Euskaltel-Euskadi taldeko jarraitzaileekin duen hitzorduari huts egingo. Izan ere, Kiroljokoak talde laranjaren denboraldia jarraituko du, parte hartzen duen froga ezberdinetako apustuak eskainiz.

Datorren astean bizikletaren zale amorratuek bere iragarpenak bota ahal izango dituzte EAE-ko Kiroljoka Apustu-etxe, Txoko eta tabernatan (ikusiko kokapenak [www.kiroljokoak.com](http://www.kiroljokoak.com) webgunean).

### Informazio gehiago:

Maribel San José  
[msanjose@kiroljokoak.com](mailto:msanjose@kiroljokoak.com)  
TEL: 688 881 709